

Garitaonandia'tar B.

USANDIZAGA

BERE BIZITZA TA ERES-EGIKUNTZA

1919'g. URTEKO EPAILAREN 25 ta 30'ean

IRAKURITAKO ITZALDIA

-- EUSKAL-ESNALEA'k eratu --

situatu itzoldi oek, eta lenda biziko

-- aldiz argitaratu ere bai --



DONOSTIA'N
MARTIN, MENA Y COMP. S'AREN ETXERAN
Fuenterrabia, 14. beko gelan

1920

Atv
8.056



BIBLIOTECA DE LA UNIVERSIDAD DE BILBAO

USANDIZAGA

DE LA BIBLIOTECA DE LA UNIVERSIDAD DE BILBAO

USANDIZAGA



USANDIZAGA



H- 16579

R- 39017

Garitaonandia'tar B.

ATV
8.056

USANDIZAGA

BERE BIZITZA TA ERES-EGIKUNTZA


1919'g. URTEKO EPAILAREN 25 ta 30'ean

IRAKURITAKO ITZALDIA

-- EUSKAL-ESNALEA'h eratu --

zituari itzaldi oek, eta lendabiziko

--- aldiz argitaratu ere bai ---



DONOSTIA'N

MARTIN, MENA Y COMP."REN ETXERAN
Puenterrabia, 14. beko gelan

1920

USANBIZAGA

THESE SIXTY-THREE VOLUMES

OF THE

UNIVERSITY OF MICHIGAN

— THE UNIVERSITY OF MICHIGAN
— THE UNIVERSITY OF MICHIGAN
— THE UNIVERSITY OF MICHIGAN

UNIVERSITY OF MICHIGAN

THE UNIVERSITY OF MICHIGAN
THE UNIVERSITY OF MICHIGAN

1950

USANDIZAGA

BERE BIZITZA TA ERESERTI-EGIKUNTZA

Jaunak: Itzalditxo au egiteko asmoa artu nuben ezkerro izan dira neregan estutasun ta lañiyak ere. Bada, bein ausartu ezkerro, nere naya zan zueri ordu alai ta atseginkor bat igaro arazitzea. Ta... bildur naiz, nere asmoak uts-eman, ta galen aunditxo bat eramango ote dezuten. Ala ta guziz ere, ausartu naiz, nere adizkide Usandizaga'tar Joxe Mari'ganako maitasunak agintzen ziralako; bada, bere alde ta oroipenez, nere maitasun ilezkofaren agerkaiz, zerbait egiteko bearturik arkitzen nintzan. Orela bada, *Euskal-Esnalea*'ko nere bazkide ta artezkari lagunak egin ziraten eskeintza gogoz-artuaz, emen naukazute, Donosti'ko seme kuñun ta Euskal-efi'ko ereslari ospetsua goraipatu naian. —¿Beteko ote da nere naitasun ta gogoa? Aleginduko naiz.

Usandizaga'taŕ Joxe-Mari jayo zan *Gari-*
bay kaleko 6'gaŕen etxea'ren 4'gaŕen bizi-
tzan. Donostiko Udalak (Ayuntamentuak)
joan dan urteko Iraila'ren 22'gaŕenian, beaŕ
zan bezela ta donostiaŕ guzien naitasuna be-
teaz, *oroitz-aŕlaua* (lapidea) jaŕi zuen ezke-
ro, ez da iñor Joxe-Mari'ren jayotetxea nun
dagon ta zein dan ez dakidanik. Aneika (mi-
laka) igaro ziran egun oŕtan *Garibay*-kale-
tik, etxe-aipagaŕiari maitasunezko begirakun
xamur bat zuzenduaz ta Joxe-Mari gaxuari
biotz-agur minkoŕ bat bialduaz. Etxe au
zoriondu zan 1887'gaŕen urteko Epailaren
31'gaŕenian. ¡Eguntza oroigafia benetan!
Bada egun oŕtan Jaungoikuak bialdu zuen
ludi ontara Joxe-Mari: egun oŕtan, bere gu-
raso maite Usandizaga'taŕ Kaŕlos jauna ta
Soraluze'taŕ Ana andrea, donostiaŕ entzute
aundikoak, alai ta pozez arkitu ziran beren
lenengo seme kuŕunaren zorionezko jayo-
tzaz, ta senide ta aideko guzien aŕtian igaro
zan egun ori atsegiñez Joxe-Mari aurtxoaren
etoŕera ospatuaz.

Joxe-Mari aurtak lenengotik erakutsi zuen

bere azkaftasun ta pizkoftasuna, bere adimen ta naimen indaftsua. Gorputz txiki aſtan gogo-almen aundia arkitzen zan noski: bere begi zoli ta arpegi argiak ofela ageftzen zuten, izanik benetan, esakunak dion bezela, gogoaren antzikuſ edo *izpilu* egizkoak. Ta egiaz ofela, urte gutxi igaro baño len ageftu zuen bere baſengo eresizaletasun ta irribetasun oi ez bezelakua.

Lau-bost urte bitartean arkitzen da: mutil koxkof polit eta pizkoſa. Erakusten du bere zain-indaſa, une ta toki guzietan: etxean amaika buruauste eman zion bere aſnari, baita bere amatxori ere bere asmakizunez ta geldi-egon ezaz. Ibiltaldi edo *paseora* urtetzean ghorantz jotzen du? *Aldeſdi-edef* edo Kasiño auſera noski, batez-ere ſoñu jotzeko ofdue-tan: alpeſik esango zioten, «guazen onea edo bestera»; Kasiño-aldera izan ezik aſaſetuko zan esanaz: «an ez dute jotzen ſoñurik». *Aldeſdi-edef* zan beti Joxe-Mari'ren jolastokirik egokiena. Bai ba; bere zaletasunak ziran zezenketa eta ereserſtia, ta toki edef oftan arkitzen zituen zei zabal ta egokia zezenketarako, ta ereskintza (orkeſta)

onenetarikoa soñuak entzuteko. (1) Zaletasun bi oyek betetzen zituan txandaka. Bere jostaketarik atsegintsuena zezenketa zan (Donostiaf jatorra izan bear) ta soka-mutufa iruditua bazebilen Joxe-Mari batetik bestera bere pizkoitasuna erakutsiaz; bañan ereskin-tzaren lenbiziko zuzmufa aitutzean bat-bat-tian utziko ditu bere jolasketa guziak, ta pizkoñ, laisterka, juango da soñu jotzalen ondora, ta antxen egongo da ikararik egin gabe, adipen guziaz, bere begi ta entzumen zoliak soñura zuzendua. Joxe-Mari'ren egipen abek ikusiaz, an inguruan zeudenak miraritzen ziran, batez ere katalandaf bat. Katalandaf onek ariturik umetxoaren egipenaz, deitu zion Joxe-Mari'ren añari, ta esan zion:

—Andrea, ¿zeñen semia da mutikotxo polit ori?

—Usandizaga'tafen semia da.

—Arítuta arkitzen naiz bere zaletasuna ikusiaz: ta gogoratzen naiz juan dan urtian ere ementxe egoten zala ume ori, ta aurten

(1) Etzuen oraindikan ankako efenik: bere eritasuna bost urtetik gora ageftu zayon

bezela, soñua entzuteaz batian jolasketari utzi ta soñularien ondora etori ta aietaz ta adipen guziaz nola egoten zan erēsti eder oyek entzuten.

—Bai jauna—zion añak—bere alai ta poztasun guzia oretan arkitzen du.

—Ba, orela jaraitzen badu ta Jaungoikuak osasuna ematen badio, ereslari aundia izango da.

Katalandafaren iragarpena bete zan ondo. Elzan ote zuan berak bere iragarpenaren betetze edo agerpena ikusteko zoria?

Joxe-Mari'k, oi ez bezelako adimena zuen benetan erestiak buruz ikasteko. Bai *Bulebar*'en ta bai *Kasino*'an jotzen zituzten erestiak berizkatzen zituen beriala, ta geyenian sartuko zan bere etxera abestutzen egun artan aitutako erestiak, ta bere aita edo ama'ri esanaz: «Gaur onela jo dute»; besua goratuaz ta neufkia (konpasa) eramanaz, ariko zan bere indar guziaz ereskin (instrumentu) guzien soñuari antz-ematen.

Ikusirik Joxe-Mari'ren zaletasun bizi-bizi ta leyatsua, beaf-bearekua zan zerbait etxe-

ra ekañtzia soñu edo ots erazitzekoa; ta erosi zioten *pianu* txiki-txiki bat. (Gaur ere pianu txiki ori naikariz goñdetzen da bere etxean, ta beti izango da bere guraso ta anayentzat oroipen betikoñ ta onespengafia). ¡Ze poza! ¡ze alaitasuna Joxe-Mari'gan softu zana ereskintxu ori etxera eramanez! Esan oi da poztasunaren neuria adi-arazitzeko: «Ori, umetxoak oñetako beñiak bezin pozik arkitzen da». Ba, gure Joxe-Mari'k etzuen emango *pianu* txiki ori oñetako beñiakatik. An, etzan ezeren beñik: bete ziran ume erlilariaren naitasun guziak: zorionez gañezka arkitzen da. Izango da noñk esan, ori ume askori geñtutzen zayela. Bai, bañan ¿geyengeyenak zeñ egiten dule? Ots-batzuek atera lenengo egunetan, ta gero baztañera. Joxe-Mari'k ez. Joxe-Mari ari da leyaz bere beatzxoakin zeñbait asmatu naian: lenbizi banaka, gero batera, bakideak (acorde) ere asmatuaz, ta beriala, aldi asko igaro bañ len, berez, berak bakarik asmatzen ditu erestitxoak, eta jotzen ditu bere-eratarra soñu politak. Ta, jakiaña, pianu txiki añtan al-lezaken guzia jotzen ikasi zuenian, aundiagua nai zuen,

bada ezin zan tajutu (moldatu) leku txiki artan gora-bera aundiko erestiak jotzeko. Bere guraso laztanak poz-pozik arkitzen ziran bere semetxoaren auferapenak ikusiaz, ta ezagutu zuten bea-bea-erakoa zala Joxe-Mari'ren naitasuna betetzea. «Bai, Joxe-Mari, esan zion aitak egun baten; pianu aundi bat eka-riko dizut». Ta esan da egin. Eka-ri zion berak nai zuen bezelako pianu aundi ori: gizonak jotzen duten bezelakoa, berak zionez: eta or-dera-arte-ko zaletasuna aundiya bazan, auferakoan geituaz zijoan, ta beriala age-itu zuen ereser-tit-zerako trebetasuna. Berak baka-rik, bere buruz tajaturik jotzen zitun *Bulebar*'en aitutako erestiak, ta ez beste askoren gogoko diran atze-riko eresti zaka-ri ta zentzugabeak, ez, baizik eresti ez-titsu ta mentasun aundikuak. Gozamen au lenengo-tik erakutsi zuen. Ba-ñan, berez, jato-ri-z, go-gatsu ta gozamen aundikua izan a-ten, zu-zendari ta zaindari gabe, bide oke-re-tik, bea-ri ez dan bidetik ja-raitzeko a-ri-zkoan arkitzen zan; ta bea-ri zuen irakasbide bat, ta erabaki zuen bere aitak erakusle (mais) on baten men-pean ja-ritzea. Ta ze-ñen eskuan, ze-ñen

erakuspean jariko zuten eñtilari txiki ta pizkor ori? Gauza guztiak bear dute asiera ona, geroruntz zuzen jaraitu ta auferapen aundiak egiteko; bada lenengotik zuzentzen ez badira, gero ere oker jaraituko dute. Beraz, Joxe-Mari'k ere, berez adimen aundikua ta gogatsua izan aŕen, irakaslari on bat bear zuen.

Zorionez, arkitzen ziran Donosti'an irakaslari onak, ta oyen arretetik bat autatu zuen Joxe-Mari'ren aitak: guziok ezagutzen deguna, donostiaren gogo-gogokua ta bat-batian aipatu ta goretsia: zorionezko irakaslari ori da Zendoia'tar Kerman, eñtilari ospetsua. Zendoia jaunak eman zizkion lenengo irakaspentak, ta irakaslari onek arretzu ta bere jatorizko adimen indartsua zuzenduaz, bazi joan Joxe-Mari auferontz, kementsu ta garaipenez.

Bederatzi urte zituenako bazebilen Joxe-Mari etxerik-etxe bere trebetasuna erakusten; bada, bere ezagun ziran guziak nai zuten beren etxetara eramatia pianua jo-arazitzeko; ta ez bakarik etxe barrenetan, aizkide tartian, baizik agirian, guzien aurian ere jo

arazi zioten amaŕ urte igaro baño len. Ikusi ta irakuri det orain ogeita bi urte *Mira-Cruz* ikastetxean antolatu zan erestaldi (concierto) baten agerkaia. Agerkai oŕtan irakurtzen da:

Lenengo atal'ian: Pique Dame (ouverture), Suppe. — *Lohengrin*, Wagner. *Sylvia*, Leo Delibes..... J. M. Usandizaga.

Bigarren atal'ian: Sonata (Berak egiñat. — *La Joyeuse fileuse*. Smith..... J. M. Usandizaga.

Nik uste det (zuen iritzia ere ala izango da noski) egipen aundiya dala ta goralgaria, bederatzi urteko umetxo batek eresti oyek agirian jotzea.

Urtetik-urtera auŕerapen aundiya egiten zuen, ta bere irakasle Zendoya jaunak atsegiñez ta txoraturik, onela zien egun baten bere adizkide batzuei:

—Mutilak, bazeukat mutil koxkoŕ bat nere ikasle, ikaratzekua: pianu-jotzaile izugaria izango dek.

—¿Oŕenbesterañokoa bai?

—Baietz; ta ez dizutet geyegizka: nik ez diat ezagutu besterik oŕen antzekorik.

Erdi txiniztuta gelditu ziran lenengoan.

Bañan, Zendoya jaunak sañitan esaten zue-
nez, egun baten adizkide oyek esan zioten:

—I, gnoiz erakutsi bear diguk mutil kox-
kor ori?

—Nai dezutenian pozez erantzun zien
Zendoya'k—bigar, añatzaldeko bostetan eto-
ri nere etxera.

Joan ziran bada esan zieten bezela. An
arkitzen zan Joxe-Mari.

—Tira, jo zer bait—diyo irakaslariak.

—Ta gzer joko det, ba?

—Nai dekana.

Ta jo zieten Bach'en eres-aldaketa edo
fuga bat; gero beste bat; ta ofela jafaitu
zuen, adizkideak arituta aoa-zabalik arkitzen
ziran bitartean.

—Izugafia dek benetan—zioten.

—Itxiñ puxka bat—dio Zendoya'k—Jo
zak orain Beethoven'en eresti *Patética* izen-
datzen dana.

Ta jo zuen aura ere ikaratu gabe.

—¡Au dek mutila! errazoyá ukan—zioten
adizkideak; ta Zendoya poz-pozik arkitzen
zan iritzi ori entzuteaz bere ikasle pizkor-
tzaz.

Laister ezagutu zuten donostiafak Joxe-Mari'ren trebetasuna, ta urte artan (amaika urte zituanian) jo-arazi zioten Kasiño nagusi-ko aretoan, eta ez edozer gauza, baizik Chopin'en eresti edo sonata bat, txalo ugarizko gorapena iritxiaz. Erealdi onetzaz Madrid-en argitaltzen zan *El Tiempo* izpañgiak (periodikuak) onela zion bere izkuntzaz:

Noches pasadas, terminado el concierto del Gran Casino, y accediendo al deseo de respetables personas de esta ciudad, de que tocara al piano en público el niño Joxe-Maria Usandizaga, rapaz de once años, que ya es un verdadero pianista, se sentó, es decir, le sentaron en la butaca del piano, y dió un verdadero concierto, siendo los primeros en aplaudir con entusiasmo los profesores del Gran Casino».

Garai orotarako, au da, amaika urte bete ordurako, bazituen berak egindako erestiak ere. Lenengoa izendatu zuen *Joxe-Mari*, dantz-erestia: Joxe-Mari'k egindako lenengoa da; ta... zeréгатик esan ez?.. amañ urteko umetxo batek egiteko ongaitasun aundiya du, ta omengari da bere irakasle Zendoya jaunarentzat ere.

Bazituen beste bi ere berak egiñak, *Capricho* ta *Souvenir de Mont de Marsan* izendatzen ziranak.

Joxe-Mari'k Kasinoko aretoan gorapen aundiya iritxi ondoren, eraldu zuten *Bellas Artes*'ko eres-zaleak, umetxoak bakarrik egiteko erestaldi bat. Ume oyek izan ziran Usandizaga, Otaño ta Mendiburu. Areto guzia donostiañez bete-beterik arkitzen zan. Joxe-Mari txikiak jo zituen Mozart'en *Fres-taldia* ta Chaminad'en *Air de Ballet*. Ta iru mutil koxkoen artean jo zuten Haydn'en *Irukañ* edo *Trio*. Txaloketa izugarriak izan ziran ertilari txikientzat, eta urango egunian izparingi guziak goraldtu zuten, esanaz: eres-lari txiki orek entzule guziak sutsu, afigariz ta zoragaritasunez beterik utzi zituala. Ama-bi urte bete gabe arkitzen zan oraindikan Joxe-Mari.

Amabi urte zituanian jo-arazi zioten beriz. Ereskizun ortan jo zituen:

- | | |
|---------------------------------|-------------|
| 1. <i>Au matin</i> | Litolf. |
| 2. <i>Andantino allegro</i> ... | Schuman |
| 3. <i>Capricho</i> | Usandizaga. |
| 4. <i>Scherzetto</i> | Godard. |

Bellas Artes-aretoan izan zan erestaldi au ere: ta beti bezela txit goi atera zan, ta entzuleen txaloketak atzenik etzuen ezkerok, jafi zan befiz ta guzien gozamenez jo zituen Albeniz'en dantza-eresti bat, ta berak asma-tutako bat, gurenda aundia iritxiaz bai berak eta bai bere irakasle Zendoia'k.

Bañan geyen goraldü zuen, andik urte bete ingurura (au da, amairu urte zituanian) Kasino nagusian egin zan erestaldi batek. Erestaldi ontan jo zituen Haydn'en *Aldake-ta'dun andante* (Andante con variaciones); Paderewski'ren *Minuetto* ta, azkenez, berak erestutako *Eiza-geftaketak* (Escenas de ca-za). Amairu urteko ume batentzat (baita aundia-goentzat ere) egikuntza, lanketa aundiya zuen *Eiza-geftaketa* eresti ofek. Izenak di-gun bezela Olefki-eleskiña da (Poema des-criptivo); ta beftan, Joxe-Mari'k irudi-arazi-tzen zuen: 1'go atalian: Eizarien irtenaldia, alai ta pozez, zalapart aundia ateriaz, adar ta turuta soñuz. 2'an: Galtzen da eizari bat baso-taftean ta abestutzen du atsekabez bere bakaftasuna. Atal au, aldi-afreako izparingiak (periodikuak) ziotenez, txit edefa ta goitar-

gitsua zan. 3'an iruditzen du ekaitza. Atal au guzietatik ederena. Ta 4'an, eizarien itzule-ra, guziak bat egin ta azken-eresefkia abes-tuaz. Onek ageftzen digu, amairu urteko Joxe-Mari mutiltxo etzala pianu-jotzaillea bakarik, baizik eres-egile itxurazkoa ere bai. Ta gñun arkitzen da eresti edef ori? Inun ere ez. Buruz egin zuen, buruz jotzen zuen, ta... berakin batian, buruz eraman zuen. Ta ez ori bakarik, baita beste asko ere. Beiñ as-matu ta antolatu ezkeru, etzayon inoiz aztu-tzen, ta eresti guziak buruz jotzen zituen. Oregatik etzan estututzen paperian jaitzeko: Esaten zuen, bai, idatzi beaf zituala; bañan utzi ta utzi, zeregin gutxiago izaten zuena-ko, ta... uste baño len eldu zayon azken-ofdua, ta eresti oyek eraman zituen berekin batean.

Aipatu degun Kasino'ko erestaldi ondo-ren, lagun ta adizkideak etzioten pakean uzten Usandizaga aitari esanaz Joxe-Mari bezelako mutiltxo azkarik etzala arkitzen, omen aundiya iritxiko zuela, ta beste ikaspen guziei utziaz ofetara bakarik jafi beaf zuela,

irakasle aundien erakuspenez, benaz ta go-
goz értilaritzan jafaitzeko.

Aldi ártan áfkitzen zan Mont de Marsan
deritzaion ériyan Planté jauna, ludi guzian
entzute aundi-aundiko pianu-jotzaile ta értila-
lari ospetsua benetan, ta Joxe-Mari'ren gu-
raso maite Karlos jaunak, jakin nairik egiaz
ta benetan bere semearen azkaritasun ta adi-
mena zioten bezin aundia zan ala ez, eraman
zuen Planté jaunagana. Jakitun onek lenen-
gotik esan zion umeari, entzun ondoren gar-
bi-garbi emango ziola bere iritzia. Ofela ba-
da, jo-arazi zion lenbizi Godard'en *Scher-
zeto*. Etzun Planté jaunak aztefketa aundi
beafik izan: laister, beriala, ezagutu zuen,
ta mutiltxoá erestia jotzen asi ta bat-batian
Planté jaunaren árpegia árgitu zan, ta adipen
guziaz Joxe-Mari'ri begiratuaz geituten zi-
joan bere alaitasun ta gozarpena, ta erestia
bukatzeaz batian besafkatu zuen ta laztan-
duaz, onela zion:

—Értílari txiki au izango da egunen baten
aundi-aundia ere: nik ala itz ematen dizut.

Gero geyago ere jo-arazi zion bere goza-
menez, ta berak, Planté jaunak ere erestaldi

bat eskeiñi zion, «Joxe Mari'k ikusi zezan Planté irakaslariak nola ikasten zuen». Ondoren, beñ-berak egin ta idatzita eman zion ikaspide bat, Donosti'an iru ilebetian berari jaraituaz ikasteko, ta esan zion gero berak lagunduko ziola Paris'era eramane ta ango irakasle ospetsuak bere alde afduratuaz, ereseñtilaritzako bide zuzenian jafi zedin. Azkenez, bere itzak, bere esanak egiteksi ta indartu nairik bezela, eskeiñi zion Joxe-Mari'ri oroipen bat: oroipen ori zan bere antzerkia, ta opalbidez idatzi zizkion itz abek: «Ereslari aundi izatera iritxiko dan nere ereslari txiki Usandizaga'tar Joxe-Mari'ri».

Egoki izango da emene esatia, andik amaf urtera, *Mendi-Mendian* antzeztu ondoren Planté jaunak zeñ bialdu zion: lenago bezela, bere antzezkia bialdu zion, bañan idazkiak onela jafitzen zuen: «Ereslari aundia izatera iritxi dan nere ereslari txiki Usandizaga'tar Joxe-Mari'ri». Etzayon aztu zeñ jafi zion amaf urte aurretik.

Itzuli zan bada Donosti'ra Planté jaunaren aolku ta oafpenok aftu ondoren, asko ikasteko asmoz betarik,

Eta orain ez det utzi bea' izendatu gabe Donosti'a' e'rtilari ospetsu ta' irakasle jakitun bat: Au da, Pagola'ta' Bel'tran. Entzute aundiko pianu-jotzaile onen zuzenbidez ikasi zuen Joxe-Mari'k ereskidetza ta aldi batez pianurako obekuntza Plante'k agindutako ikasbidez. Ta, jaki'ña; berezko olde sendoa ta irakaspen onak alkaftuaz, bete zuen Plante' jaunaren naia: ta bere gurasoak erabaki zuten Paris'a bialdutzea.

Joan zan bada Paris'a amalau urte zituanian, gogoz ta benaz ikasteko asmo sendoz beterik, *Schola Cantorum* deritzaion ikastetxera. Ikastetxe onek izan ditu beti irakasle ospetsu eta bikai'ñenetakoak; Debussy, Vincent d'Indi, La Tombelle, Albeniz, ta euskaldunentzat oroigarri dan Chafles Bo'rdes, ta beste irakasle gorespengari asko. Joxe-Mari'k jakitun aben a'rtian ikasi bea' asko: berez, adimen izugarikua ta ikastzale ta gogatsua, ta ga'ñera ai'ñ irakasle onak, ai'ñ maisu bikai'ñak; jaki'ña, urte gutxi igaro ba'ño len omendu zuten, ta irabazi zuen bere gorralpenaren age'fkaia. Ereskidetza (armoniya) ikasi zuen d'Indi ta Tombelle'ekin, ta zeafke-

resgintza (kontrapunto) Tricon'ekin, auferapen aundiya egiñaz, ta beriala asi zan idazten eresti polit eta atseginkofak.

Ikastaro bat igaro ondoren *Schola Cantorum*'go ereslariak etofi ziran Donostira erestaldi ta abeskizunak ematera, ta berekin batean ekafi zuten Joxe-Mari. Ta bere efitarak (donostiarak) ikusi zezaten Joxe-Mari-ren auferapena, jo-arazi zioten pianua erestaldi oñtan, bere arazoz utzirik bigafen atal guzia: ta txit ondo eresti zalak jo zituen, ta erakutsi zien donostiarai etzuela alpekeririk izan Paris'en, ta ofela, omendu zituen bere irakaslariak ta atsegindu bere efitar maiteak.

Lau ikastaro (curso) igaro zituan Paris'en. Uftero, ikastaldi ondoren etofitzen zan Donosti'ra, ta zetofen bakoitzean ekafitzen zituen eresti beñiak, geruago ta edera-goak. Irugafen ikastaro ondoren ekafi zuen *Eusket-abestizko «Laukar»* (cuarteto) edef ta atsegingafi bat. Orain entzungo dezute: ez guzia, bada luze egingo litzake, bañan bai bere bi atal egokienak. Lenbizi, guziok obeto aitu ta gozafu dezazuten, zerbait esan beaf dizutet beratzaz.

Laukat au iru eres-gayaz egiña da: gai oyek dira *Mariya nora zuaz*, *Iriyarena* ta *Itxasoá*. Irurak eztitsu ta politak. Agetzen ditu gai oyek, lenbizi banaka, beren xamurtasuna garbi ta obetoago gozatzeko; gero, elkatzen dira ta nastutzen dira ereskide ugari ta ederez inguraturik; baita zeartketaz (contrapunto) egoki ta poliki apaindurik (batez ere laugafen atala): baiñan beti *Maria nora zuaz* gain dala, aufen ta garaile balitz bezela.

Lau atalak entzutea egoki izango litzake, obeto gozatu ta guziaren iritzipena beartbezela emateko; baiñan ez degu astirik, ta joko dira *Andante* ta *Scherzo* izendatzen diranak. Lenengoaren gaya da *Itxasoá*, efiabesti goxo ta eztitsua. Ereñi edet au, tamal ta atsekabez inguraturik agertzen zaigu: ta ereskintzaz adi-arazitzen duen ilundasuñak biotz-ikara ematen du; afigafiya da. Gogoratzen du lenbiziko Mari ta Bartolo'ren elkaritzeta; baiñan alaitasun-ordez samintasuna agertuaz. Badirudi alako eguzki-argiaren geldi-geldiroko itzalpena, ilunabatu ta gau itzaltsuz inguratzen dala.

Entzun zazute afduraz.

(Gonzalez (P.), Rodriguez (V.) ta Gandia anayak jotzen dute *Lauka*'ren *andante* deritzayon atala).

Iriyarena da orain joko duten atalaren eres-gaia: ta atal au azaltzen da *Scherzo* antzeraz. Lenbizi, afa-bitak (bioliñak) ixiltsu efi-eresia entzun-erazten du; gero, azaltzen da sendotuaz, beñiz ixilera biurturik; ondoren, aldatzen du eres-pidea gutxigora (tono menor), ta eres-kide berezkoz, zeañketa ta aldaketa ugari-az, indařtu ta geitutzen du *Iriyarena* eresia, ta gero, geldiro ta goxoro gutxitu ta ařgalduaz dijua itzaldu ařte.

Gozañtu zazute.

(Izendatutako eřtilariak jotzen dute *Lauka*'ren *Scherzo* deritzayon atala).

Polita, edeřa ta atsegingafia da benetan laukař ori, batez ere oyek bezelako eřtilari-jotzaře bikain-bikañak jo ezkeroz.

Amasazpi uřte zituan Joxe-Mari'k ereřti ori egin zuenian, ta bere omendi edo entzutea asko zabaltzen ari zan; batez ere Eresi-Batzaldietan (concursos musicales) lenenřo saria beraganatzen asi zanian.

(1) (Joxe-Mari amasei ta emezortzi uftekoaren idurikundeak).

Lenbiziko saria irabazi zuen 1906'garen uftean, Donosti'ko Euskal-jayetan, efi-abestiz egindako *Irurak bat* deritzayon eresti polita bialduaz. Geroztik, jakinekua zan, uftero Joxe-Mari ageftzen zan garaile beste ereslari guziak menpetuaz. Lenbizi, Elgoibar'ko Euskal-jayetan, bere euskel-eresti xamur ta eztitsu *Bidasoa*'kin irabazi zuen lenengo saria. Ufengo uftian Eibar'en *Euskal Festara* deritzayon biribilketa alaitsuakin, ta ufengoan Efnani'n *Txoritxua, nora ua*, euskel-abesti zefgada edo txofa txukun ta mamitsua bialduaz. Joxe-Mari'an ainbeste garaipen ikusiaz gnof afitu ez? Gora ta gora zijuan bere izena, bere omena, ta geruago ta geyago zaletu ta adoretuaz jafaitzen du bere efi-aldezko lanean.

Asko dira berak sortu ta egindako erestiak, ta atsekabez dizutet, bea' dan baño gutxiago ezagutzen diranak; ta au gure efuzda: beaftuak gaude, batez ere efitafak, eza-gu-arazitzeko Joxe-Mari-ren eresti ta efi-abesti goxo ta xamurak. (Itzaldi onen azken

aldian entzungo dituzute iru eri abesti). (1) Bigafen itzaldian (datoen igandian) ezauaraziko dizutet Joxe-Mari'ren eres-egikuntza guzia; au da, zenbat eresti egin zituen. Oyen artean degu bat *Euskel-abestizko eresti* bat (Rapsodia vasca) pianuaz jotzekoa. Orain entzungo dezute. Bere gayak dira, *Iruten ari nozu*, Laburdi'ko abestia (Donostiak Joseba Andoni abak *Uneak* izendatzen du); bigaeren gaya da *Menditar baten abestia*, ta irugarrena *Ay, ay, ay mutillak*, abesti alai ta guzientzat ezagu-ezaguna. Lenengoa ta bigaeren atala leunki, zeafketa aundi gabe azaltzen dira, ta irugarrena, lenbizi bereziki edo banatua agertuaz, gero aldaketaz inguraturik gero ta geyago indartu ta pizkoituaz amaitzen da.

(1) Eskefak «Donostiak Abeslari-Bazkun»ari, bada bere artezkari bikain Esnaola jaunari zor diyogu Joxe-Mari'ren erestiak entzun ta gozafutzea: bestela nofk adi-arazi Usandizaga'ren abesti xamufak? Beraz; garai egoki ontan, ondo izango da «Abeslari-bazkun» ori ta bere artezkari Esnaola jaunari zorion-agur bat donostiak guzien alde nik eskeintzea.

Entzun zazute aietaz.

(Casadevante'tar Guadalupe neskatileak jotzen du *Rapsodia* deritzayon erestia).

Joxe-Mari, beti bezela, langile afkitzen zan, geyenian makal ta gaxorik afkitu aien: ta egikizun aundi bat betetzeko asmoa artu zuen.

Orétarako, Bilbao'ko Power jaunak eskeini zion eres-antzerki-izki (libreto) bat, *Mendi-Mendian* izendatzen zana. Gogoz ta benaz asi zan bada eresaldutzen. Bere etxe-ko idazkelan egin zuen guzia.

(Idurizten da Usandizaga'ren idazkela).

Gela oñtan oñdu asko igaro zituan Joxe-Mari'k *Mendi-Mendian* erestutzeko: bada, geyena egin zuan gaxorik afkitzen zala, ta asko oetik jetxi gabe: oeratuta afkitzen zanian, jaftzen zioten pianua bertatik jotzeko bezela. Ala ta guziz ere zain-indar ta biotz aundikua zalako, laister amaitu zuen; ta eldu zan Joxe-Mari'rentzat, baita ere bere sendi ta adiskideentzat, egunik aundiena, egunik pozgari ta atsegintsuena: 1910'gafen urteko Oñila'ren 21'garrena: eguntza (fecha) oñtan antzeztu zan lenengoz Bilbao'n *Mendi-Men-*

dian Usandizaga'ren eresantzezkirik edere-na. Gau artan Bilbao'ko antzokian afkitzen giñan guziok asebate giñan zorionez: ta txoraturik Joxe-Mari'ren ereskintza ta egikizun aundia ikusiaz, bat-batian txalokatzen genduen *Mendi-Mendia*'ren atal bakoitza. Bai; etzaigu aztuko bizi geran artean gau artako Joxe-Mari-ren garaipena. Eskefak izki-egile aipatu Power jauna'ri, bada, bere adore ta kemen sutsuaren bidez abiatu ta geñtu zan *Mendi-Mendian* bea' bezela ta erestitza izugafiari zegokion eraz antzeztutzeko. Eskefak baita ere, ta ez gutxiago, Bilbao'ta' *Koral* abeslari-bazkun aipaga'ri ta ospetsuari; bada lenengotik alai ta pozez artuaz ta gogoz ta benaz saiatuaz geñtu zuten beren trebetasun ta erfi-almena, guzioi adiraziaz *Mendi-Mendian* eres antzezkiaren edertasun aundia. Ofela ageñtu ziguten Joxe-Mari'ganako maitasun gañtsua. ¡Agu' sutsu bat donostia' guzien alde Bilbao'ta' *Koral*eko abes-baka'larik bikain ta beste abeslari guziei!

Gairaipen onen bitartez Usandizaga'ren izena zabaldu zan alde guzietara: ez bere aberian baka'rik, baizik lateri-mugak igaroaz

eldu zan erbeste ta atzefietara ere, arigafiz izendaturik bere euskel-abizen jatofa; ta beraz, aintzatu ta goraldurik bere aberi kütuna.

Garai oftan, Planté eñtilari jaunak bialdu zion len aitatu dizutetan oroipena, zorion-opalpentsat esanaz: *Ereslari aundi izatera iritxi dan nere eñtilari txiki Usandizaga'ri.*

Bilbao'ko antzokian gogoz, biotzez ta sutsu bat-batian txalokatua ta ospatua izan bazan, etzan izan gutxiago Donosti'ko Antzokian lenengoz 1912'gafen urteko Joñailaren 15'an antzeztu zanian. Guziok gogoratuko dezute, ta ez det zer esanik gau artako Joxe-Mari'ren garaipentsaz. Egun oroigarria benetan, batez ere donostiafentsat. Eresetsilari (crítico musical) ta irakasle guziak goraldu zuten ezagutuaz ta aitortuaz eritzi-batez Joxe-Mari'ren garaipen aundi ta ospetsua.

Egitan edera, egokia ta ongaitasun aundikua da *Mendi-Mendian*. Nere ustez, Joxe-Mari'ren eres-antzerki guzien artean ofek du bereztasun aundiena; eres-antzerki oftan ikusten da, or afkitzen da Joxe-Mari'k eres-titzarako zuen olde (instinto) ta gozamina:

ori da Joxe-Mari'ren eresertia. *Mendi-Mendian* Usandizaga'ren goyargiz ta etofialdiz, iturriyari ura jarion bezela, bere-oldez, berezkoz; soñtua da, adimena indaragotu gabe. Oregatik diot *Mendi-Mendian* dala Usandizaga'ren eresertia; egilearen barengo gozamen ez egiña dalako, ta beraz, erikoi ta abendakofa dalako.

Noñbaitek esan zuen Joxe-Mari'k inoren erestietatik artuaz egiten zituela beriak: au da, Wagner, Debussy, Puccini, Dukas, edo beste ereslari ospetsuakgandik. Ori da, zer bait esan bea!.

¿Bai alda inof, jakintsua izan afen, bere oldez bakarik ereserti beirik soñtu duenik? Ez. ¿Beethoven ere ez al zan asi eres-egiten Haydn eta Mozart'i jaraituaz?

Onela zion eres-etsilari ospatsu Gazkue'tar Pantzezka jaunak; ta irakuriko dizutet entzute aundiko ertilari onek eñderaz ziona: «En el estilo, en la armonia, en la orquestación, Usandizaga es un eslabón de la cadena artistica; pero eslabón que se presenta con caracteres propios, personales, específicos». Gazkue jaunaren iritzi au neria

bañon indartsuagua da ta beraz oargafi ta onespengafia.

Mendi-Mendian eres-antzerkian arkitzen diran eres gayak euskal-abesti jotofak dira, ta ofegatik *Mendi Mendian* guzia euskal-eresia da. Batzuek diote alemanieraz egiña dala; besteak Puccini ta Debussy antzeraz; ofek esan nai digu berekikoa dala. Ta onen edo bestearen antzeraz egiteak, ez du zer ikusi eresia nuntara dan esateko. Ofetarako, au da, nuntara dan ezagutzeko, begiratu beaf zayo nundik atera diran eresi gayak: egikerak ez du zer ikusi. Gayak euskal-efi-abestiak badira, ta gai oyen zuzenbidez eresia egiten bada, azalduaz eresefti-araudiz, eresantzerki guzia izango da euskoa, euskal-efitara, nai doixtareraz, nai prantzeraz, nai italieraz ereskidetu. Ofela da *Mendi-Mendian*; bere atal guziak dute euskeltasuna, eusko-era, eusko-gogua; ta beraz, eresi guziak beaf dutena; au da, entzuteaz batean gogoarazi gure auraroa ta jolasketak, gure asaben oitura ta bizikerak; itz batez, gure jayotefia gogoarazi. Ori erakusten digu Joxe-Mari'ren eres-antzerki eder ofek: ta beraz,

Mendi-Mendian euskeldunenizat guzizko aipagaría da, ta bere egile ospetsua maitagarí ta goralgaria.

Mendi-Mendian guzia edera izan aŕen, atal guziak ez dira berdiñak ongaitasunian; baditu atal batzuek besteak bañon obeto eginiñak, batez ere, «Eres-gai biltzea» (Epŕlogo): atal au beti entzungo da befitasunez, ta joŕzen dan alde guzietan izango da txalogafi ta goralgaria: au da, nere ustez, Usandizaga'k egin dituen eresti guzietatik edereña ta egokiena. Atsekabe-gaian asiera ematen dio, ta gero biltzen ditu maitasun-gaia ta *Jore-Mari* gaia. Ondo erakutsi zuen atal ori eginiñaz bere jakintza izugaria eres-gaiak goraberaka erabiltzen; bai ereskilde ta bai zeafkerestutzen.

Biguiñ, xamur ta eztitsua da ipui bitartekoa: aipagaríak dira baita ere irugarfen ataleko abesteŕe (coro) edo artzai guzien abestiak; ta antzeŕkoitasun aundikoa Gaizto'ren antzeŕkia. Itz batez esateko, atal guziak dira entzungaríak ta Usandizaga'k aipamen ta goraltasun aundiya beragandu zuen eres-antzeŕki ori eginiñaz.

Goralpen ta garaikunde oyek etzuten Joxe-Mari asperu, beste askori gertatzen zayen bezela: baizik geyago ta geyago adoretu ta indafagotuaz jaraitu zion bere egikizun onuratsu ta erikoiari. Bañan gauz ez degu astirik guziak adirazitzeko, ta datofen igandian (Jainkoa lagun) jaraituko diogu egikizunari zerbait esanaz (itzaldi askorako afkitzen da gaya), azaldurik beste eresti batzuek, batez ere *Enadak (Las golondrinas)* ta *Gara (La llama)*. Orain entzun-arazi beaf dizkizutet iru efi-abesti polit-polit, *Mendi-Mendian* bukatu ondoren egiñak. Euskel-abesti oyek dira: *Tranxangoia*, *Iru efeg orienteko* ta *Mari Domingi*. Lenengoa guzia da berak egiña; besteak berak ereskidetuak. Bereiz politak izanik, ta «Donostiaf abeslari-bazkun»eko neskatila efitilari bikañ-bikañek, Esnaola maisuaren aftezkaritzaz abestu ezkeru, atsegiñez entzungo dituzute.

(Abestutzen dira iru efi-abestiyak).

Tranxangoia'k adirazi nai digu txoritxikianganako beaf dan maitasuna, eta erakusten die mutil koxkoñei txoritxu oyei pa-

kean uzten, afika egiñaz il gabe. Erestiti polit-polita ta efikoia du.

Bigafena edo *Iru efege*, izenak dion bezela, «Iru efegeen» edestia da: lenengo atalaren edeskidetzat leun ta ereza da, bañan bigafenak ereskide ugariya du ta abesti-bitartea zeafkera egokiz igaro ondoren laguntzen dio abestiari aldaketa ezitsuz. Polita baña ederagoa da.

Mari Domingi, Belenera dijoazen aftzaitaldeen abestia da. Beren aftian ageitzen da Mari-Domingi gona zafat jantzia, ta bestiak pare egiten diote, ta esanaz, berakin batean jua nai badu gorde beafko duala gona zaf ori. Erestiti alaitsuz ta pozgariz egiña da, biribilketa edo arif-arif antzeraz.

Jaunak: eman dizutet Joxe-Mari'k ogeita iru urterako egin zituen abesti ta erestiti batzuen befi ta nere iritzia. Nere epaiak indar gutxi du, ta gaufko nere esanak indaragozteko ematen nuakizute atzefitar baten iritzia. Entzun dezuten laukaf ori Donostian lenengoz jo ondoren, *Dax* Prantz-efiko izparingi batek onela zion: «Usandizaga, Paris'ko Schola Cantorum» en sari aundi ta omenga-

fienak irabaziaz ikasi duan ereslari gaztea, ertilari izugafia da. Esan leike Cesar-Frank aundia befbiztu dala beragan; ez beragandik zefbait afitu duelako, ez; Frank bezin berez-tafa da, beragandik jariyo ta kutsu gabeko sorpen edo ekafia du. Benetan diot, oraingo edo gauf-eguneko ereslari asmatsu ta oar-ga-fien artean aundienetakoa dala, ta laister goraipatuko dala bere abizena, bere jayote-fia omenduaz».

Au ez da bere efitaf batek esana, baizik prantzeztaf batek; beraz, indaf geyago du. Ta gero onela zion (bere izkuntzaz): «Jose Maria Usandizaga qui peut certes rivaliser avec Dukas et Debussy dans la science de l'orchestre, dans l'art du developpement et des timbres, Jose Maria Usandizaga est un inspiré, c'est un poete, c'est un barde, c'est un genie».

Ta egitan, eresti eder oyek egiteko, bat-
tez ere *Laukar* ta *Mendi-Mendian*, izan beaf gogaftsua, olefkaria ta neuftizlaria; izan beaf oi ez bezelako gogamen sendo ta biotz aundiduna; izan beaf... Joxe-Mari.

USANDIZAGA

BERE BIZITZA TA ERESEKTI-EGIKUNTZA

(*Bigarren itzaldia*)

Jaunak: Lenengo itzaldian eman nizuten Usandizaga'ren bizitza ta berak egindako eresti batzuen berri: ta gelditu giñan *Mendi-Mendian* eusko eres-antzerkia adirazi ta azaldu ondoren. Jaraitu zaiogun bada gaufer gure eñtilari ospetsuaren egikuntza omen-gañari.

Mendi-Mendian antzeztu ondoren, eres-antzerketak eman zioten nekea atsedendu ta gero, gertu zan Joxe-Mari bere egikizunari jaraitzeko.

Garai ortan egin zuan *Umezurtza*, Euskel-erri-geftalegia (Escena popular vasca). Olefki (poema) eder onen izkia ere Joxe-Mari'k berak egiña da. Onela dio:

«Ufundik dator jai-abestia'ren susmufa.

Maritxu gaxuak entzuten du, ta atsekabez dio: «Nere adiskide onak diradenen abestia da, ta nere bila datoz noski». Ala da. Baseñitañ talde bat mentitik jetxirik uferatzen zaio Maritxu'ri; ta diote onginaiz: «Atoz gurekin, Maritxu».

—¿Nola nai dezute ni jolas-jaira joatia, alaitasun orde... samintasunez biotza bele bazait?

—Atoz, Maritxu... of... bian... gurekin batian dantzatuaz, aztuko zaizkitzu neke ta samina.

—¡Aztu!... ¡Aztu neri atsekabeak!... ¡Il ziran nere gurasoak!... ¿Ez dezute uferatzen... zuen alaitasuna neretzat... dala minga?

Befiz, baseñitañ aietako batek onela dio:

—Maritxu... atoz... bakafdadean oroipe-nez inguraturik... gaxotuko zera.

—Bai, bai—diote guziak; ta asierako jaiabestitik soñtzen da maitasun-abesti atsegin-gaia bat. Guziak abestutzen ari dira, baina ezin dute itzaldur Maritxu gaxoaganako efukia.

—Lagun maiteak, zuazte (dio Maritxuk),

zuazte.... nere eriotza ikusi nai ez badezute.

—¡Maritxu gaxua!... ¡malkoa jariyo!... guazen.

Ta badijuaz menditar adiskide guziak samindurik... Maritxu bakañdade itzaltsuan utzirik... negahez... ta samintasunez inguratirik.

Oleñki xamur ta erukioñ. Ta Usandizaga'k berak asmatu ta softua izanik, ezafizion izki eder ofi abesti ta eresti xamur, ez-titsu ta... izugafia, egokitzen zitzayon beze-la. *Andante* deritzayon atala, guztizko ede-ña da, ta anditasun ugariya ageftzen digu. Amayerak ere ongaitasun aundia du.

Lenengoz abestu zan Madrid'en Manccinelli'ren artezkaritzaz, ta guztizko gozame-nez entzun zan. Geruago ezafizion ereskin-tza (bada lenengotik abestutzeko bakañik egin zuen) ta eraldatu zuen bakañlari (solistas) ta gizon ta emakumeak abestutzeko: ta onela eraldatu ondoren, lenengoz Donostian, Joxe-Mari'ren opaz egin zan erestaldian adi-arazi zan, Esnaola eñtilari bikaiña'ren artezkaritzaz, ta Gabina Perez anderea ta Gabi-

londo'taf Luis jaunak bakaflari egiñaz. Eres-
taldi au izan zan Joxe-Mari il-ondoren, *oroï-
galua* egin zezaten.

Pozik arkituko nintzan zueri entzun-ara-
ziaz, bañan ereslari ta abeslari asko beaf
ditu ta zala danez lan askotxo beaf du ondo
geftutzeko.

Usandizaga'ren gogapen ta langiletasuna
geituaz zijoazen beti bezela, ta egikizun
aundi bat betetzeko asmoa artu zuen. Ofé-
tarako antzerki-izki (libreto) on baten bea-
fian arkitzen zan: ta izki edo gai ori eskeiñi
zion erdel-idazle ospatsu Martinez Sierra'k.
jBazekien idazle ofek zeñi eskeintzen zion,
bai; etzuen ezez arkituko beste bat *Mendi-
Mendian* eres-antzerkiaren egilea bezelako-
rik! Joxe-Mari'k autatu zuen bada Martinez
Sierra'ren *Las golondrinas* deritzayon an-
tzerki-izkia, bere ustez aura zalako ego-
kiena.

Beriala nai zuen lanari asiera ematea,
bañan osasunez etzan ondo arkitzen, ta urte
bete igaro zan egikizun beñiari asiera eman
órduko. Bere gorputz gaixokora urte beteko

sendabidez puxka bat gogortu zanian, adoretu zan ta artu zuen lanari ekiteko asmoa. Ofetarako, erabaki zuten, bere osasunaren alde izango zala leku egoki ta osasungafi batera joan ta beñtan lan egitea. Zorionezko toki ori izan zan Urnieta'ko basefi-etxe Agefe. Etxe ofen jabea da Treku jauna, donostiak euskelzale gogatsua, ta beti izan bada onuratsu ta atsegingafia basefi-etxe ofen jabe izatea, orain askoz ere geiago, Usandizaga'k iru ilabete beñtan igaro zituen ezkeror. Etxe ori afkitzen da Urnieta'n beñtan, bultzi edo trenaren geltoki ondo-ondoan; ezker aldetik, Donosti'tik aruntz guazela. Nik uste det egoki izango litzakela izki edo irakurgaitxo bat jaftzea, adirazkaitzat, ain ikustokian afkitzen dan ezkeror, andik igarotzen diran guziak jakin dezaten etxe-artan eresaldu zuela Usandizaga'k bere eres-antzerki eder *Las golondrinas* deritzaiona. ¡Ze pozik ikusiko luken beñtako etxeko-andre Joakina'k! ¡Amaika ofdu ta egun igaro zituen Joakina'k Joxe-Mari'ren alaitasun ta naikariak gozartuaz! Poz-pozik, txoraturik afkitzen zan ikusirik Joxe-Mari olo-tartean, guziaz berak

jañitako izenez deika ta gari ta aito-aleak botatzen! ¡Yayoa ta atseginkora da gure Joxe-Maritxo! — zion Joakiña'k — oluak ere beriala ezagutzen dute. Etzaizkio ez aztuko Joakiña'ri Joxe-Mari'k igaro-arazi zizkion egun alaiak! Ondo ta naikariz goñdetzen ditu oraiñ ere Joxe-Mari'ren antzezkiak.

(Ageñtzen dira «Ageñe» basetxea, ta andñe Joakiña ta iloba ta Joxe-Mari'ren antzezkiak).

1913'gañen urteko Iraila'ren 20 gañenian asi zan etxe zoriontsu ortan lenengo eres-neufkiak (konpasak) betetzen, ta Lotazila'ren 20'gañenian amaituta afkitzen zan *Las golondrinas*'en erestitza. Au da, iru ilabetian. ¡Badakizute zenbat gogañtu, asmatu, soñtu, eraztu, ereskidetu ta idatzi beañ dan *Las golondrinas* bezelako eres-antzeñki aundi baten erestitza bañ egiteko? Ba, Joxe-Mari'k iru ilabetian eman zion asiera ta azkena egikizun aundi ta edeñ ori. ¡Zeñ eta zenbat egingo ote zuen Jaungoikuak bizitza luzia eman bazion! Bañan, Jaunaren asmo ta eginañak ezkutukoak dira, ta ez degu azteñtutzeko eskubiderik.

Las golondrinas erestitza bukatu ondo-

ren beriala Madrid'era joateko asmoa aritu zuan, bada bazekiten Madrid'tafak Joxe-Mari zerbait egiten ari zala beñtan antzetzutzeko, ta epe-gabe ta lafiturik itxoiten zeuden gure erřilari ospetsuak zer eramango ote zioten ikusi arte. Ofela bada, joan zan Madrid'era, bere zuzenbidez ta artezkaritzaz ikasketak egitera; ta ofetan igaro zituzten 26 egun. Oso ederki ikasi ta leyaz geřtu ondoren antzertu zan lenengoz Madrid'ko *Price* antzokian, 1914'garen urteko Otsailaren 4'garenian, amaigabeko txaloketaz ta gogatsu egilea goraturik ta garaipen izugaria lorturik. Joxe-Mari'ren gogo ta naitasuna bete zan ondo: pozik, alaitsu ta atsegiñez arkitzen zan Urnieta'ko baseři-etxean egindako erestiaren garaipena ikusiaz: bada, baseřian egindako lan aundi ori Madrid'era begira egiña zan; au da, bere gogapena, bere itxodopena Madrid'era zuzenduaz; ta ikusirik Madrid'en izan zuen abegi ona ta goralpen aundiya, atsegiñez lerturik arkitzen zan bere biotz sutua.

Sagi-Barba abeslari bikaiñak izan zuen lenengoz abestutzeko zoria; ta txit ondo

abestu ere benetan. Lenengotik aritu zuen leyaz, ta egokitu zitzayon aldi-ona bere abots edef ta antzeztiz goralpen aundia loftutzeko: ta ez berak bakañik, baita ere Vela andere abeslari ta beste bere lagun-batz'eko eres-efetikideak.

Izugafia izan zan benetan Madrid'ko garaipena. Ufengo egunian albistari guziak adirazi zuten edeski (reseña) luzeak emanaz, ta bat-batian aitoftuaz *Las golondrinas*'en edertasuna ta aunditasuna, ta bere egile ospetsu Usandizaga'ren almen ta goitasuna.

¡Amaika zorion-aguf aritu zuen egun artan Joxe-Mari'k! Efi guzietan, batez ere Donosti'an, izan zuten zeregiña egun artan urutizki ta urutidazkiak (telefono ta telegrafuak), bada bere senide, adiskide, lagun ta efitar guziak nai zioten bialdu zorion-aguf goxo ta eztiitsu bat Donosti'ko seme kutunari. Ta ¿zeñ egiten du Joxe-Mari'k? Bere Donosti'ra, bere *korra*-txokora zuzendu biotza, bere goñputz txikiko biotz aundi, maitekoñ ta eñikoia, bialduaz Donosti'ko Uri-batzañaren buru (edo alkate) jaunari urutidazki sutsu ta bizi bat, esaten ziola: «Adirazi zayozu nere

erri maitiari berari bialtzen dizkiotela aitu ditudan txalo ta goralpenak». ¿Aztuko al zayo inoiz Donosti'ko efiyari Joxe-Mari'ren egikera au? Ez det uste. Joxe-Mari'k erakutsi zuen ondo zenbateraño ta nola maitatzen zuen bere Donosti kutuna: beraz, donostiaf guziak beartuak daude maitasun ori ordaindutzero, bere izena maiz oroitu ta ospatuaz.

(Garai afitako antzezki bat erakutsiaz).

Oñ ikusten dezute Joxe-Mari *Las golondrinas*'en ereseftia afitetutzen, erestelkiñari (gramófono) irafi edo ezafiteko.

Las golondrinas'en goralpena iritzi-batez izan zan edo ez, erakusten digu Madrid'ko *Palace-Hotel*'en, bere opaz egin zan jaikunak. Biotz-aguñezko jaikun ori (home-naje) egin zan, Madrid'en afititzen ziran eres-eftilari ta eleftzale (artistas y literatos) ospetsu guzien afitetan. Ta beraz, egipen onek goraldu zuen Joxe-Mari, Antzokiko txalo ta oyu guziak bañon geyago: bada an afititzen ziran eresti ta eftilaritzan jakitunenak ziranak, ta aitoñtu zuten iritzi-batez Usandizaga'ren almen ta eres-ongaitasuna.

Erakutsi beař dizutet ereslari ta beste eřtilari oyen antzezkoa Joxe-Mari inguratzen dutela.

(Idurizten da aipatu dan jaikua-antzezkoa).

Madrid'en egunero, etengabe, 53 bidaf antzeztu ondoren, Joxe-Mari'ren *Enada* lirain ta bizkorak, altxatu ziran ta ası ziran egaz inguru guzietara, gelditzen ziran leku guzietan bere garaipen ta goitasuna abestu ta zabalduaz. Amerika'n ere sařitan antzeztu zan, ta irakufi gendunez txit goralduek izan ziran.

Donosti'ra eldu ziran Jořailian donostiaref Pasko-jaiak alai ta pozez igaro-arazitze-ko; ta jbenetan alaitu ere gure gogo ta biotzak! *Enadak* bařon lenago etori zan Madrid'tik bere egilea, Otsailaren 21 gafe-nian; ta jořduan bai erakutsi zuela Donostiko eřiyak Joxe-Mari'ganako maitetasuna! Bultzı (edo ifrena) eldu bařo auřeragotik geltokian etzan ařkitzen utsuna aundirik. Guziak nai zuten lenbaitlen Joxe-Mari ikusi, beraganatu ta aguf goxo bat emafia. An ařkitzen ziran Donosti'ko iru ereslari-bazkun (bandas de

música), beren ereskide ta lagun maiteari eresiz zorion agura emateko. ¿Ta gero kaletan? ¡Aura bai zala benetako zalapaftal! ¡Bai ba!; guziak nai zuten Joxe-Mari'gana uferatu, bostekua luzatu ta besarkada maiteko bat ematia; bañan etzan ezez. ¡Izan zuen lana zalburditzayak (kotxeruak) iñori miñik eman gabe Joxe-Mari'ren zalburdia eramateko! Itz batez esateko, abetalpen, abegi txit edera, maitekofa ta sutsua izan zan, beafzan bezela ta donostiafeiz zagokien eraz. Gañera, bere lagun batzuek eralduta, Joxe-Mari'ren opaz, egin zan *Maria-Cristina*-afotztegian bazkari-jai eder bat, 500 maikide bildurik, ta alaitasun, aldi-on, *umore* eder ta gozarpen txit ona erakutsiaz.

Len esan dizutetan bezela *Pasko* egunerako gertu zan *Las golondrinas* eres-antzekia, ta antzeztu zan *Reina Victoria*-antzokian. Nik ez dakit nola itz-egin, nola mintzatu, beaf dan bezela adirazteko donostiafak gau aftan izan zuten alaitasuna, gau aftan donostiafen biotzetan softu zan gozamina *Las golondrinas*-en eres-antzezketarikusiaz. Txaloka ta oyuka txoraturik afki-

tzen ziran atal bakoitza bukatzean, ta azke-
nez estalkia jaso ta jaso-araziaz Joxe-Mari
befiz ta befiro agertu zedin, gogoz ta bio-
tzez aintzatu ta goraltzen zuten bere ixen
goxo ta abizen euskel-jatorra. Madrid'ko ga-
raipena aundiya izan bazan, aundiyagoa izan
zan Donosti'koa. ¡Ta nola ez! Madrid'ko
txalo ta gorralpenari geitu zayozute donos-
tiarak zioten maitetasuna ta kutuntasuna, ta
ofek emango dizute Donosti'ko zoragarita-
sun ta goratasunaren adirazpena.

Las golondrinas'ek dituen atalik edere-
nak, nere ustez oek dira: *Irugarren atal-au-
tea* (Preludio del tercer acto); atal onek
eres-gai bi ditu: erdel-izki *Caminar* ta *Me
dicen que ya no me quieres* atalak dituzten
eresiak; ta eresi bi oyek elkartu, nastatu ta
zearkera ugariz egina da *Igitantzezpena* (La
pantomima) guztizko edera: ta gero *Udabe-
fi-abestia*, Vela andreak poliki abestua; *Ra-
conto* deritzayona Sagi-Barba'k edeki adi-
razia. Bañan auzez aitatutako atal biyak,
Aurkotsa (Preludio) ta *Igitantzezpena* (La
pantomima), dira gorezpengarrienak. Atal bi
oyetan erakutsi zuen Joxe-Mari'k ereskin-

tzan zenbat zekien, ta pfantzetaf batek zion bezela, Dukas, Debussy ta beste ereslari ospetsuen berdin izatera eldu zan Joxe-Mari.

Eta egitan, ofetzaz ez dago eztabaidarik; beste egikera batzuetan izango dira geyago noski, bañan ereskitzaren (orkestaren) gorra-berak ezagutu, ta beraz, abesti-eresgaiak apainduraz inguratzen ez; ofetan Joxe-Mari eldu zan, iritxi zan, beste ereslari altsu ta ospetsuenak, bai abefiko ta bai atzerikoak eldu ziran goitasunara. Ofegatik *Las golondrinas*'en atal bi oyek beti oroitaraziko dute Usandizaga abizena.

Enada garaile oyen ibilketak asko nekatu zuten Joxe-Mari, ta atsedean aldi bat aitzeko beafian arkitu zan. Nik uste det zuek ere orain atsedean txiki baten eske zaudetela, ta pozik emango dizutet, bitartean eresti eder bat jo-araziaz. Aufeko igandian jo zuen Casadevante'ta Guadalupe neskatiñ eritlariak entzun-araziko dizute Joxe-Mari'k pianurako egin zuen eresti ongaitasun aundikoa. *Impromptu* deritzayo. Zala da, batez ere ezkef aldeko aldaketa ugaria; eskubiak darama

eresgaia, zintasan garbi ta berekikoa. Entzun zazute aietaz.

(Jotzen du *Impromptu*-crestia Casadevante neskatileak).

Usandizaga nagikeriaren etsai aundia zan, ta etzan geldi egotekoa: ta atsedena alditxo bat bere sendi-maitearen ondoan igaro ta beriala, geitu zan bere eres-egikuntzari jaraitzeko.

Martinez Sierra'k eman zion beste eres-antzerki izki bat, *La llama* deritzayona, ta lanerako naitasun-gaiez beterik joan zan *Yantzi*'ra, antxen, kutsu gabeko aize-tartian bere lan ta egikuntz aundienari asiera ta amaya emateko ustez.

(Idurizten da *Yantzi*'ko etxea).

Noizean bein etortzen zan Donosti'ra ikustaldira bat egitera, ta ofegatik bazekiten bere adiskide batzuek lan izugafia aitu zuela: nik ere izan nuen ikusteko zoria, lenengo egintza edo atala bukatzen ari zanian; ta egitan dizutet, berak bere pianuan erakutsi zidanian ikaratuta gelditu nintzala, ta be-

rialala, beste batzuek bezela, asi nintzan esaten Joxe-Mari oi ez bezelako eres-antzerkia egiten ari zala. Bai, ala zan; egikizun aundia artu zuen; aundiegia bere gorputzaren iza-kerarako.

Zortzi ilabete ziran egikizun ori asiera eman ziola. Bere gogo ta adimen sendo ta altsua leyaz ta kementsu arkitzen ziran, baina bere gorputz gaixokorak etzion laguntzen.

Bein baño geyagotan esan zion bere aitak: «Joxe-Mari, lanari utzi ta atsedeen-aldi bat artu bea dezu». «Bai, aita, geruago; orain au bukatu bea det, ta onen ondoren beste bi beriala egingo ditut; bada asmatuta gerturik dauzkat: orduantxen artuko det atsedeen-aldi bat». ¡Artu zuen, bai, berak uste baño lenago, ta... betiko atsedena! Bete-betian ibili zan *La llama*'ri amaya emateko, ta ori ere ez berak nai zuen bezela; bada ataltxo bat utzi zuen azkenerako, beste guzien ondoren bukaera emateko ustez; atal ori zan *illet eresia* (marcha fúnebre). ¿Zerf erazo, zerf zuzendu zion Joxe-Mari'ri asmo ori? ¿Zerfatik utzi zuen azkenerako, au da,

bere eriotz-urén egiteko il-eresia? ¡Goiko Jaunaren autakuntzak!

Gaizki arkitzen zan bada Joxe-Mari, ta ekafi zuten etxera Dagonila'ren azken-aldian. Gutxik zekiten Joxe-Mari gaxorik Donosti'an arkitzen zala; bañan laister eldu zan guziak jakiteko egun tamalgaria. Berak, Joxe-Mari'k, igafi zion aldi gutxiko bizia zeukala, ta esan zuen betiko bizitzarako bidean jaítzera zijoala goi-maitasunezko aitor'kun on bat egiñaz ta Elizakoak Jainko-zalez artuaz. Gutxitan ikusiko dira Donosti'an egun aftari bezelako laguntza ta ospe aundiko Elizakoak. Askok erakutsi nai izan zuen Joxe-Mari'ganako maitasuna. Gogoz ta adoretzu artu zituen laungoikozko gogo-sendaki deunak; ta ondoren, etzan arkitzen Joxe-Mari'gan beste asmorik bere gogoa, bere anima zeruratzea baizik.

1915'gañen urteko Uñila'ren 5'an arkitzen gera. Afatsaldeko zazpiretan Joxe-Mari gaxua arkitzen da iltzeko-zorian. Laritu ziran ingurukuak: deitu ziraten neri, beste batzuei bezala, ta beriala, laisterka joan nintzan beste apaizak baño lenago eldurik; Joxe-

Mari arkitzen zan irudiz azken-arñasetan, ta malkotsu agur-on bat egin ondoren irakufi nion anima-aldezko azken-otoia biotza lef-turik.

Guziok uste genduen beriala il beař zuela, bañan zořtzi ordu, era orřan, gurutzia esku biyen arřean zuela otoizka igaro zituen. Iñorř badu gaitasunik bere eriotzaz itzegi-teko, nik izan beař det, bada azkeneko zořtzi ordu oyetan bere ondo-onduan egon nin-tzan, ordu laři ayek jasatasun ta goi itxaro-penez eramateko laguntzen, ta bera ikusiaz, bere gogo-indař ta bere biotz aundiaren goi-maitasuna ikusiaz, ikasbide aundi ta onura-tsuak ařtutzen. Bai; Joxe-Mari'k erakutsi zuen eriotzako orduan ere bere gogo, bere animaren indař ta sendotasuna. Il baño bost edo sei ordu ařtetik bere gorputza ozturik arkitzen zan, ta eskuturřean etzitzayon soma-tzen biotz-taupadarik; ala ta ere bere adi-mena, bere ezaguera ařgi-ařgi arkitzen zan, ta etzitzayon ilundu azkenengo txakada, az-kenengo asnasa igaro arře. Gogo-indařez bakař-bakařik bizi izan zan zořtzi orduan. Sendalariak etzekiten zeř egin, bada alpeřik

zan sendakaiak ematea: noizean bein biotz-
taupada nola zijoan somatu: ta onelako ba-
ten, ordu biyak aldian, taupada ardu ondoren
esan zion sendalariak: «Obeto zaude, Joxe-
Mari» (zerbait esatearen); ta Joxe-Mari'k
erantzun zion: «Ez, sendalari jauna, ta ez
dago obeto joan bearik ere; Jaunaren eraba-
kia da ta Bere naiari jaraitu bea diogu».
Geftasun ortan arkitzen zan Joxe-Mari. Maiz
esaten zigun, bai neri ta bai Lasa jaunari ta
beste ingurukoai: «Oso edefki ta poz-pozik
arkitzen naiz; bada arimaz ondo izan ezker-
ez det besterik bea»; eta bein sendalariari
etzala ondo arkitzen esan ziolako, lafitu zan,
ta begiyak gugana zuzenduaz, onela zion:
«Gaizki esan det; ni txit ondo arkitzen naiz,
gorputzez gaizki egon azen. ¡Barkatu jau-
na!»; ta itz goxo ta pozkidagariak entzun-
araziaz gentzatsu (paketsu) igaro zituen ordu
lafi ayek. Azkenez, esan zigun: «Ni banua;
eskefikasko lagundu dirazuten guzioi», ta
bana banaka, guraso, anai, osaba ta lagun
guzioi deitu zieten agututzeko: ta batzuei
eskua zuzenduaz ta besteai besarkada bat
emanaz, batez ere aitari «etxeko guzientzat

ematen ziola» esanaz... jaguritu zan!.. ika-
ratu gabe, goi-maitasun ta itxadopenez bete-
rik. Goizeko irurak dira... Gertutzen da
ludi atzipekor oni agur egiteko... Gurutzia
esku bien artean geyago estutuaz... «Banua
—dio—agur betiko . . . «Betiko ez, seme:
zerura arte»—dio bere amaxok. . . «Ala da,
amaxo... zerura arte... agur». Biotzez, mai-
tetsu ori esanaz, zeruratu zan Joxe-Mari'ren
gogo donetua. ¡Eriotz edera! ¡zoriontsua!

Bere azkenengo eres-egikuntza izan zan
La Irama'ren illet-eresia (marcha fúnebre).
Illet-eresi orek ditu bi eres-gai: *eliz erestia*
(tema religioso ta *maitasun eres-gaia* (tema
de amor), ta eres-gai bi oyek elkaritu ta eres-
kidetuaz egiña da. ¡Gogaitu ote zitzayon
Joxe-Mari'ri bere eriotza, eresti edera ori egi-
ten ari zanian!... ¡Noski!... Joxe Mari'ren
eriotza goi-maitasunez inguraturik izan zan...
Eres-erti ta *Ziñestasunak* elkariturik eraman
zuten donostiaf aundiaren gogoa... maitasun-
garatar-tean!.. *Mendi-Mendian* bañon gora-
go... ortze-urdin zoragarria... *enada*'ren egaz-
kera bañon ariñagoi igaroaz... ¡Goian bego!
Beriala zabaldu zan Donosti'an izpar-beltza,

ta malko asko ixuri-arazi zuen, donostiak guziak atsekabeturik. Tamal ta atsekabe au erakutsi zuen Donosti'ak ufengo egunian, Joxe-Mari'ren gorputz-obiraltzan.

André-Mari eliz-nagusian egin ziran il-otoizketa (Elizkizun) ospe aundikoak. An afkitzen ziran aldun ta efiko-nagusiak; Gazteiz ta Ciudad-Real'ko Gotzalak, Jauflari (Gobernadore) Diputazio, Uri-batza, ta, itz baten esateko, Donosti guzia. Bakaldun edo efege-efegiñak ere bialdu zituzten beren of-dezkoak. Elizkizun ondoaren egin zan gorputz-obiraltza. Garibai-kale'ko inguru guziak donostiafez beterik afkitzen ziran, Joxe-Mari'ren gorputzari azken-obira laguntzeko. Gizaſte, bazkun, batzoki ta lagundi guziak bialdu zituzten beren aurkezleak. Ez da ikusi Donosti'an iñoiz aura bezelako gorpu-laguntza ugari ta oarſgaririk. Gorpu-agurteſian Donostiaf-abeslari-bazkun aipatuak abestu zuen Joxe-Mari'k egindako *Ave Maria*, ta ondo-ren il-otoia esanaz, eraman zuten ilteſgira.

Orain ikusiko dezute irudiaf gorpu-laguntza; *Ave Maria* abestu zan garayan aſtutako antzezkoa.

(Idurikunde-bitartean Donostiak-Abeslari bazkunak abestutzen du *Ave Maria*.)

Oitura da ildakoen aldez otoi bat eskatutzea; ta gzer egokiago garai ontan berak, Joxe Mari'k, egindako *Ave Maria* edef ori abestutzea bañon? Uste det guziok entzun dezutela gogoz; bañan... biotz ikaraz, ...afiturik... noski; ta beraz, orain, bere ongaitasuna obeto gozartutzeko, befiz abestutzero goaz. Ausetik esan beaf dizutet zefbait beratzaz. Atal bi ditu, izkiak bezela. Lenengoa, bereztasun ta elkafrkidetasun garbi ta leun-leun azaltzen da, elizkaitasun aundiya ageftuaz, ta poliki-poliki jetxitzen da geldiera xamuf batera. Bigaren atala, *Sancta Maria*, ageftzen da indafez otoyari almen geyago ezafi nayan; ta entzun zazute afetaz, batez ere *nunc et in hora mortis nostra*, ta oaf-tuko dezute esakun ofen otoi-indaf ta almena; geldiro-geldiro ta eztitsu azaltzen da leunki ta xamuftasunez bukatu afte. Ta azken-itza, au da, *Amen*, edefki zabal ta egokiroz azaltzen da; aufferkoa indaf tu ta bayeztu nai luken bezela. Dirudi, ereslari ospetsu batek zion bezela; «Aundituaz gora ta gora

zeruruntz igon, ta biurtuaz zoragarizko irudipenez jetxitzen dan olatu bat bezela.» Onetzaz, Alfonso Jesus'en Lagundi'ko Aba, ereslari trebe ta bikaiñak, onela dio bere izkuntzaz: «Usandizaga, con su temperamento esencialmente músico y gran sensibilidad estética, no solamente logró penetrar y comprender como pocos las sublimidades del género religioso-musical, sino que nos ha dejado una composición de este género (*Ave Maria*) llena de unción y misticismo, sencilla y encantadora al par que inspirada, y, á veces, subyugante.»

Gozatu zazute.

(Abestutzen da beriz)

Bere bizitzaroko geftaera guzien edespen uñi ta laburtxo bat egin dizutet. Orain, ilondoreko geftakuntzaz zer bait esan beara dizutet. Ta, zintzotasun ta egititasunaren bidez aurretik izendatu bea det garai ontan Joxe-Mari'ren adizkide gogaltsu bat, Joxe-Mari'ganako maitasunez beterik beti afkitu dana, ta bere alde z gogoz leyatu dana: adizkide ori da Ufkola'ta Prantzizko jauna. Bada

adizkide onen laguntza gogatsuak, bide asko egokitu ta efeztu zizkion Joxe-Mari'ri: ta azkenez, Urkola jaunak eta Donostiaf-Abeslari-Bazkun'aren Lendakari Peña ta Goñi'tar Xabier jaunak gogaldu ta eraturik egin zan Joxe-Mari'ren opaz Gipuzkoa-zeyan arkitzen dan Oroigalua (Monumento). Beraz, Urkola, Peña ta Goñi ta Donostiaf-Abeslari Bazkun'a, donostiafentzat omengafi dira. Oroigalu ofen ofdainbidez egin zan *Umezur-tza*-erestitzaz aiatu dizutetan erestaldia: ta bere agefpena egin zan 1916' garfen urteko Iraila'ren 24'an, Efege, uri-batza' ta beste aldun guziak beftan arkitzen zirala; baita ere efiko abeslari ta ereslari-bazkun guziak, ta gañera, Gipuzkoa'ko 25 Ereslaritalde (Bandas) ta Donosti'ko efi guzia. Zuek geyenok egunero ikusi afen, ez degu utzi beaf garai ontan erakutsi gabe.

(Ageftzen da irudiz oraigalua)

Dakizuten bezela, azkenengo egin zuen eres-antzeftki aundia, bere il-ondoren lenengoz antzeztu, arfitaldu ta ezagutu da. Eres-antzerki ospatsu ta aipagafi ori da *La llama*.

Etzuen izan Joxe-Mari gaxuak eres-antzerki ofen antzezketa ikusteko zoririk. Amaituta utzi zuen ataltxo bat ez bestia.

Leyatsu ta afduraz arkitzen ziran ereslari guziak Joxe-Mari'ren azken-eresti ori entzun nayan. Bañan, jakiña da, bere sendi, guraso ta anaiak, eriotz-minduraz etzuten egikizun ofetan beriala saftzeko gogorik. Eta gero-runtz, adoretu ezkeroz ere, korapilo asko askatu beafa izan zuten. Eskeñak bere anai tfebe, bulaftsu ta eñtilari Eñamun'i; bada Joxe-Mari'ren usgunea etzuen iñofk beteko berak bezin ondo. Ofela bada, Eñamun'en egikuntzaz abiatu ziran gertutzen: ta Barata ereslariaren artezkaritzaz ikasketa asko egiñik iragafi zan Donosti'ko «Victoria Eugenia»-antzokian egingo zan *La llama*'ren lenengo antzezketa. Iragarpen onek zaletasun ta zoragaritasun aundia sortu zuen ereslari guzien artean. Eldu zan egun leyatu ori: 1918'gafen urteko Ilbeltza'ren 30'gafena. Egun oftan entzun zan lenengoz Joxe-Mari'ren azken-erestia. Antzoki guzia beterik arkitzen zan, ta amaigabeko oyu ta txalokeaz goralduek izan ziran, bai Barata artezka-

ria ta bai abeslari bikaiñ Kanalda, Campiña, Kosta, Alcaraz, Jordá, Donostiaf-abeslari-Bazkun ta beste antzezkideak; bañan txalo sutu ta gogatsuenak izan ziran Usandizaga'ta Eramun'entzat bere egikizun goralga-fiagatik, ta batez ere Joxe-Mari aurkezten zalako beragan.

Atal batzuek bestiak bañon atsegiñago entzun ziran. Lenengotik asi ta irugañen ataleraño aunditu ta geituaz dihua bere onura ta zalegaitasuna. Ederki egiña da bigañen ataleko *Sultan-ozte* abestia, ta aipagaña da bera entzuteaz batean oartzen dan berezitasuna, bai eres neurki ta bai bere zolitasuncan ere. Atal bigañen onen *Aurkotsa* (preludio) afigaña da; gotaegi xamuñ ta ugaria ageitzen digu. Bañan atalik edereña ta aipagaña da irugañena; beñan ditugu, *Tafteko-erestia* (interludio) izugafizko jakituriz egiña; of erakutsi zuen Usandizaga'k ereskitzarako trebetasun ta ezaguntza izukoña: ori bakari'k egiñaz bere izena beti izangozan oroigari. Atal ori ta *Mendi-Mendian'go eresgai-biltze* (epilogo) ta *Las golondrinas* en irugañen atal-aurea (preludio) anai iruki edo

irukoitzak dira. Ta gzer esango dizutet *Sultan-mirabe* abestitzaz (coro de odaliscas)? Abesti polit, alai, xamur ta zoli-zolia; ta ereskidez goxoro inguraturik beritasun aundia erakusten digu. ¡Amaika txalo ta gorallpen irabazi zituzten Donostiaf-abeslari-Bazkun'eko neskatiia eñilari trebe ta gogatsuak ataltxu ori abestuez! (Gerotxuago abestuko dizute neskatiia abeslari-talde ber-berak). Eder-edeñ ta gaintasun aundikua da baita ere bigaen ataleko azken-abestele edo guzien abestia, talde-biyak abestutzen dutena. Abesti biyak egoki elkaritu ta ziafkeran arteziz erestua, ta Dorostiaf abeslari-taldeak bezin ederki abestu ezkeru, aunditasun izugarrikoa. Garaipen aundia benetan izan zuen Donosti'ko antzokian.

Donostia'n bost bidef antzeztu ondoren asi ziran gertutzen Madrid'taiei entzun-arazitzeke. Artezkaritza aitu zuen ereslari trebe ta *maisu* jakitun Villa jaunak, ta bere erakusbidez ederki gerturik, antzeztu zan lenengoz Madrid'ko antzoki *Aundi'an* Epaila'ren 30'gañenian. Ospe ta jaikun aundiz inguraturik izan zan; ta Donosti'ko garaipena

aundia izan bazan, etzan txikiagoa izan Madrid'koa. Atal guziak izan ziran txalotu ta goralduak; batez ere bigarren *atal aurka*, ta irugarrenean *ilet-eresia* (marcha fúnebre), ta geyen-geyen *mirabe-abestia*, donostiaf neskatila abeslariak ezlitsu ta goxoki abestua: iru aldiz abestu-arazi zioten oyu ta amai-gabeko txaloketaz; ta amaf aldiz abestu bazuten ere, geyagoz naiko zuten. ¡Abeslari bikaiñak dira benetan!

Madrid'en eres-antzeztu ondoren albistari guzietan eres-jakitunak (edo jakituntzat daudenak) izan zuten zef esan. Ta eguzien iritzia batezkua al zan? Ez. Izan ziran batzuek ganora gabeko aitzakiak esanaz, gutxitu nai zutenak goralpena. Ta gzeintzuk ziran? *Enadak* edo «Las golondrinas» en egazketa arin, zabal ta luzeak minduta utzi zituen biotz-kaxkafunak. Ta ori ere etzuten egingo noski Joxe-Mari bizi izan balitza. Bene-benetan jakitunak diranak ta beren iritzia zintzo ematen dakitenak, bat-batian aitoftu zuten *La llama*'ren garaipena, ta jaso zuten Joxe-Mari'ren egikuntza beste ereslari guzien gain jafi afteraño.

Eres-idazlari ospetsu batek onela zion bere erdel-izkuntzaz: «*La llama* es una obra magna y dramática en grado sumo. Quiso Usandizaga perpetuar en su obra de arte lo que constituye la esencia de su vida, sus sentimientos, su firmeza, su espíritu...» Ta ala da: Usandizaga'k bere eresi ta abestietan erakusten digu bere izakera; au da, gogo zindoa, naimen bulaftsua, biotz xamuñ ta ez-titsua.

Gogoz ta atsegiñez entzun zan Madrid'en eres-antzerki eder ori, ereslari entzute aundiko batek (Borrás) digunez; bada onela dio bere eres-iritzian: «Espontáneas y efusivas han sido las demostraciones del pueblo en las que se mezclaban la ternura, la admiración y el orgullo». Bai, arigafitasuna softzen da Joxe-Mari'ren egikuntza ikusiaz; ta beraz, ez degu... baimen beafik, arokeriz esateko: «guzien gain dan ereslari ospetsu ori, gure anaia da».

Orain entzungo dezute eres-antzerki ofen abesti polit eta alde guzietan atsegingafi izan dana. «Donostiaf-Abeslari-Bazkun»'eko neskatila eftizale ta trebeak arteziz abestuko

dizute, Esnaola artezkari bikain ta ospetsuaren zuzenbidez.

(Abestutzen da «Odaliscas» deritzayon abestelia)

Orain jakin-araziko dizutet Joxe-Mari'ren eres-egikuntza: lenbizi, bere ugaritasuna, ta gero berezitasun ta ongaitasuna. Jaungoikuak emandako gotafgi ezezko ta ugariz, ta gogoz ta benaz ikasiaz beragandu zuen eres-almen indartsuaren bitartez, Usandizaga'k ugaritu ta geitu du eresefitza asko ta asko onuratuaz.

¿Badakizute zenbat eresti, bata bañon bestea obeak, egin zituen Usandizaga'k? Aitu zazute.

Pianuan jotzekuak, ogei ta bat; ofganuan, emezoftzi.

Abestiak: abots-baterako, amabi; abots-askoz ta abesteleak, sei.

Ereskintzaz (orkesta), bost; eresbatzez (banda), bi; eres-bilduma (conjunto), bi; arabitza edo estekinez (cuerda), sei.

Eres-antzerkiak (obras de teatro), iru. Guztiz, *irurogei ta amabi*.

Au da: *iru* eres-antzerki (ópera), *amasei* iru edo lau ataldun gañantzi aundiko eresti ta beste *berogei l'amasei* guztitarikoak.

Oña of Usandizaga'ren eres egikuntza.

Aundia, izugafia, ogei ta zortzi urteko bizitza bitartean egiteko, ta aundiagoa idurituko zaigu oartzen badegu bere goñputz-izakera, argal ta gaixokora.

Egitan, ugariya ta onuratasun aundikoa izan da Usandizaga'ren ereseñti-egikuntza.

Ta ¿zeñtan ageñtzen da bere onuragaya? ¿Zeñtan bere berezitasuna? Ara: Usandizaga'ren ereseñtia ez da jakitunentzat bakarik egiña, ez; baizik, bere erestiak atsegiñez entzun dituzte, bai jakitunak ta bai ez-jakikak; au da, ereslari aundiak eta apal ta txikiak. Eñi guziaren txalo sutsu ta zoragafitasunez inguraturik antzeztuak izan dira *Mendi-Mendian*, *Las golondrinas* ta *La llama*. Ta oñetan dago ereslariaren berezitasunik aundiena.

Ta ¿zeñi jaraituaz, edo zeñ irakaskintza edo eskolaren jarabidez egin ditu Usandizaga'k eresti oyek? Lenengo itzaldian esan nizuten bezela, batzuek diote Debussy'ri ja-

faitzen ziola, besteak Puccini'ri, onek Vincent d'Indi'ri, afek Wagner'i, ta abaf. Ta iritzi banatu oyek erakusten digute Joxe-Mari'k jafaitzen ziola... *Usandizaga*'ri; au da, bef-beraren gota'rgi ta almen inda'itsuari.

Omen aundiko idazle batek dirauzku, *Usandizaga* Debussy bañon a'rgiyagoa dala, ta Puccini bañon biziagoa ta zintzoagoa adirazitzeko.

Usandizaga'n guziak a'kitu dute ereskin-tza jakintsua, befi asmamen ta gozamen berezia; gañera, efi-abestiz zeto'rkion gota'rgi altsua, ta azkenetz, izki edo itza ta eresia (letra y música) egoki elka'rtutzea. Bere ereskidetza era-befikoa da; au da, era-befikiz egiña, befi-zalea izan gābe. Esan nai det: Joxe-Mari'k, egikera-befi egokiak beragandurik, eza'ten zieten bere ere'sti guziei befi-tasun onurako'a. Ez beste askok egiten duena: gota'rgi (inspiración) gutxi dutelako, asmo be'riak dirala-ta, bete ta inguratu abestiak ereski ugariz arau ta neufi gabe, ere'si ta abestiak autsi ta ilunduaz; ta ¡jakiña! ere'sti ilun, otzak, itun ta bizitasun gabeak egiten dituzte. Ori ez da eresertia.

Ereserñti-araudiak iru ongai eskatzen ditu:
1.^o *Bakoiztapena*, au da, eres-antzezlariak bakoiztu, berezitu, berekiko eresgai bitartez, antzezlariaren egikizunaz batean azaldu-ara-
ziaz. 2.^o Entzuleai eres-antzezlariaren gogo-
izakera adi-arazi; au da, eresiz, ereserñtiaren-
bitartez entzuleai igafi-arazi nola afkitzen
dan antzezlaria, edo tamal, edo alai edo
atsegiñez, ta abaf. 3.^o Eresti ta antzezlarien
egokitasuna: au da, cresti-era ta antzezla-
riaren izakera bata bestearen egoki izan
ditezela.

Iru eres-ongai oyek oartzen dira Usandi-
zaga'ren eres-antzerkietan, eres-gai ta eri-
abesti bitartez ederki ta jakintsu atzalduez.

Eres-egile ta idazle ospetsu batek onela
zion bere erdel-izkuntzaz: «Deja en sus
obras retratada y esculpida su alma de ar-
tista, perfectamente identificada con el canto
popular, que era su corazón, y con el arte,
que era su inteligencia. Sí; el corazón de
Usandizaga latía á impulsos del canto popu-
lar, y su arte consistía en valerse de su pri-
vilegiada inteligencia para embellecerlo más
y más hasta elevarlo á la cúspide de la per-

fección, como un himno en honor de Aquel que lo infundiera en el alma de los pueblos y naciones.»

Ori zan, jaunak, ori zan Joxe-Mari, gure adiskidea, gure aberkide ta gure eñtilari ospetsua. Aipatu ta omenaldu zagun bere izena.

(Iturizten da Usandizaga'taŕ sendi guziaren antzekia).

Ta orain, zuen entzumenak goxotasun ta atsegiñez beterik gelditu ditezen, lengo abeslari bikaiñak entzun ta gozañtu-araziko dizute Usandizaga'k egindako abesti polit eta xamur-xamur bat: *Egunto batez*.

(«Donostiar abeslari-bazkun»ak abestutzen du *Egunto batez*).

Jaunak: ikusi dezute nere izkuntza argal, urí ta motelaren bitartez zein zan Usandizaga'taŕ Joxe-Mari, ta zeŕ egin zuen. Badakit nik bañon askoz ere obeto ta argiyago azaldu ta adiraziko zuela beste edozeñek; bañan, ausañtu nintzan nere Joxe-Mari'ganako maitasun aundiak bultzatzen ziralako. Guziok


gaude beartuak, bakoitza bere gaitasun ta almenez, ospegari ta goyetzgari diran efikosemeak omendu ta goraldutzero; ta inor bada donostiarren maitasun ta onespina beragandutzeko ongaiak ditunik, gañez irabaziak ditu Usandizaga'k. Egiya da donostiarak ondo erakutsita daukatela beraganako maitasuna, ta eratu dituzte bere opaz ta gorapeñez egipen oroigarriak; bañan ez da aski, ez da naikua; geyago egin bea da, geyagoren aldin da euskeldunen alde. *Mendi-Mendian* egin zuen ereslaria. *Mendi-Mendian* baka-bakaik egiteak, beste ezeftxore egin ez aren, emango zion Joxe-Mari'ri donostiar-seme ospetsuen artean izendatzea. ¡Amaika badira entzute-aundikoen artean izendatzen diranak gauza gutxiago egiñaz! Bañan Usandizaga'k asko ta askoz geyago egin zuen ikusi dezuten bezela. Goraldutza omenaldutza badin aintzatuaz bere izena. Ofetarako ustez izan da nere itzalditxo au, nere beraganako maitasun-agergaiz.

Eskeñak biotz biotzez lagundu diraten ereslari ta abeslari trebe ta bikain guziei, beren laguntza ta egipen eder ta aipagarria-

gatik. Nere indaíez bakaíik aulak izango ziran itzaldi oek, baña *Euskal-Esnalea*'k alde batetik eta ain edeíki jo ta abestu duten eftizaleak bestetik, asko apaindu ta edeítu dituzte. Eskeíak guzioi.

Ta guzia izan dedíla donostiaí kutun Joxe-Mari'ren goralpenez, ta bere jayoteíi maite Donosti edeíaren aintzaz ta omenez.





TAS
1280

F

with the same number of the same
series of the same series of the same
series of the same series of the same
series of the same series of the same
series of the same series of the same
series of the same series of the same

in the same series of the same
series of the same series of the same
series of the same series of the same
series of the same series of the same
series of the same series of the same
series of the same series of the same

